

+

SERIEA

Hezkuntza akordioa (eta XIII) • Jokin Bildarratz. Hezkuntza Legearen ernamuin izango den akordioan onetsi direnak «oso aproposak» direla uste du Bildarratzek. «XXI. mendeko» erronkei erantzuten lagunduko dutela uste du, eta hezkuntzaren bidez «gizarte kohesioa» trinkotzeko zimenduak ere badirela bertan.

«Ikastetxe guztiek jasoko dute beren eremuan dagoen errealitatearen ardura bat»

Irati Urdalleta Lete
Arantxa Iraola Gasteiz

Hezkuntza Legea ontze aldera Eusko Legebiltzarrak onetsi duen hezkuntza itunari buruzko «zumeen» ingurukoa izan da lehen galdera, eta gogo onez hartu du metafora Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratzek (Tolosa, Gipuzkoa, 1963). «Aproposa» deritzo «zumeari», haren ezaugarri: «Alde batetik, sendotasuna du, baina, aldi berean, malgutasuna ere bai». Biak beharrezkotzat ditu. Baina pozik da, oro har, Eusko Legebiltzarretik jaso duten agiriaren edukiekin: «oso aproposak» direla uste du. Goresgarritzat du horien inguruan lortu den «adostasun zabala» ere. Izan ere, irudi ezohikoa lortu da: EAJk, EH Bilduk, Elkarrekin Podemos-IUK eta PSE-EEk onetsi dute ituna. «XXI. mendeari begira» ariko den hezkuntza sistema bat ontze aldera, ezinbestekoa iruditzen zaio batasun hori. Erronkak handiak baitira, eta sakonekoak: «Gizarte kohesioan egin beharreko ariketa guztietan hezkuntza sistemak ere nolabaiteko ardura bat izan behar du».

Negoiazioak azkenera arte luzatu ziren. Inoiz pentsatu zuen itunik ez zela egongo?

Beti pentsatu nuen akordioa egongo zela. Ni negoiazio askotan egon naiz, eta beti azken momentura arte hainbat gauza ez dira konpontzen.

Eta egon zen askatzen zaila izan zen korapiloren bat?

Ez. Jende askok aipatu du euskararen gaia, baina uste dut ez dela bereziki gai eztabaidaturik egon. Oinarriak aurkeztu zirenean,



Beti pentsatu nuen akordioa egongo zela; beti azken momentura arte hainbat gauza ez dira konpontzen»

hainbat alderdik eskatu zuten oinarri orokorrez gain neurri zehatzak ere jartzeko. Hurrengo hamabi urteetarako neurri zehatzak daude, garatu beharko direnak.

Segregazioa arazo bat al da?

Errealitate bat da. Leku ezberdinetan, era ezberdinetan, eta arrazoi ezberdinengatik: ez dago segregazio bat. Izan daiteke jatorriaren arabera egindako segregazio bat eta hizkuntzak eragindako beste bat. Akordioan ahuldadeak gaintzeko bideak jarri dira, eta sistemak erantzun beharko die egoera horiei. Gure konpromisoa da 2023ko ikastur-

tean neurri horiek ezartzen hastea.

Zer egin da gaizki segregazio horiek gertatzeko?

Ez da gaizki zer egin den. Askotan, errealitateak ekartzen gaitu egoera batera. Adibidez, izan ditzakegu bi ikastetxe titulartasun berekoak, hamar metrora, eta errealitate oso ezberdinak izan, bakoitzak baduelako historia bat, iragan bat. Tokatzen zaigu, diagnostikoa egiteaz gain, gaintzea. Gizarte akordio bat bultzatu nahi dugu, horren aurka aritzeko. Ez da erraza izango, hainbat neurri hartzea bultzatuko gaituelako: muga eta marko batzuk jarri beharko dira.

Non espero dituzue zailtasun handienak? Erresistentziarik espero duzue?

Egin behar dugun sistemak bidezkoa izan behar du. Hainbat neurri daude: adibidez, matrikula. Asmoa da herri edo zonako matrikulazio esparruak izatea. Gurasoak ez dira ikastetxera joango, baizik eta matrikula egiteko toki batera. Irizpide batzuk egongo dira ikasleen onarpenerako.

Nola lehenetsi sare publikoak itunpekoa hain indartsua bada? Eskola publikoak izango da ardatz nagusia; gure programan eta lege-



biltzarrak onartutako konpromisoan dago. Ikasleen banaketa honela da: publikoetan %51 eta itunpekoetan %49. Publikoko inbertsioak %63 hartzen du, eta itunpekoak, %37. Nola lehenesten da sare publikoak? Hor datu bat.

Zer aldaketa ekarriko ditu legeak?

Legeak bainoago...

2023ko akordio horrek...

Legebiltzarrean, seihileko hau baino lehenago gure konpromisoa izango da hamabi urterako kronograma bat egitea, eta lege-biltzarrak onartu dituen neurriak jarriko ditugu egutegian.

Euskal hezkuntza zerbitzu publiko parte izateko, baldintza batzuk zedarritu dira. Legean jasoko da betetzen ez dituztenei finantzaketa publikoa etetea?

Ez da eteten. Pribatuek laguntza izango dute, gizarte honen balioak errespetatzen badira. Ez da posible herri batean bi ikastetxe egon, eta bakarrak hartzea herriko zaurgarritasunak. Nahi badute funts publikoak izatea, biek nahiz eta juridikoki batek izan ti-

tulartasun bat eta besteak besteak beste – konpromiso berdina izan beharko dute.

Baldintzetako bi dira sexuen arabera ez bereiztea eta laikusuna. Sexuka bereizten duten eskolak diruz lagunduko dira? Eta erlijiosoak?

LOMLOEK aipatzen du ezin direla diruz lagundu sexuaren arabera bereizten duten ikastetxeak. Beraz, horretara ekarri beharko da. Haiekin landu beharko da prozesu hori nola egin, eta momentu honetan matrikulatuta dauden ikasleek nola bukatzen duten eta hasi behar dutenek nola hasi, funts publikoak jaso nahi badi-tuzte. Dokumentuak dio erlijioan legeak zehazten duen minimoa izango dela gure maximoa.

Baina erlijioa bera bada eskola batzuen izaeraren parte, ezta?

Errespetatu beharko dute curriculum barruan eman beharreko eskaintza, gurasoek aukera eduki dezaten hartzeko edo ez. Ikastetxe horretan erlijio askotako ikasleak egon daitezke, eta errespetatu behar da.

«Galdera da ea erreala den egun D eredu esaten den hori»

AI
LUL Gasteiz

Hizkuntza bakoitzak izan behar duen pisua izan da akordioa auzi nagusietako bat. Bildarratzen esanetan, euskarak izan behar du sistemaren «zutoina», baina gaztelera eta ingelesa alde batera utzi gabe. Begi onez ikusi du B2 maila lortu beharra, eta, helburua bete den ikusteko, ebaluazioa gatzat du.

Zer da euskara ardatz duen eredu eleaniztuna?

Muina, zutoina euskara duen sistema. Ikasleen %80 baino gehiago D ereduan badago, hori da gure sistema, baina, aldi berean, gaztelaniarekin eta gutxienez beste hizkuntza batekin.

A, B eta D eredurik ez da aipatzen itunean. Desagertzeraz doazela eta, bertigorik?

Ez, guztiz aurkakoa. Ikastetxearen hizkuntza proiektua oinarriko elementua da. DBH amaituta, ikasleak B2ra ailegatu behar du euskaraz eta gaztelaniaz, eta B1era hirugarren hizkuntzan. Irakasleen formakuntza ezinbestekoa izango da.

Nola egingo da jarraipena ikusteko eskolek B2 maila lortzen dutela? Zer gertatuko da atzean geratzen direnekin?

Ez da eskolekin; ikasleekin da. Ebaluazioa da elementu nagusia hori neurtu ahal izateko. Ez ikaslearena bakarrik: irakaslearena, zentroarena, sistemarena... Ebaluatu beharra daukagu, helburuak betetzen diren jakiteko, eta, bestela, zuzentzeko.

Baina ikusten bada zentro batek hautaturiko hizkuntza ereduarekin ez direla lortzen helburuak? Sistemak baditu neurriak hartzeko bideak, eta horregatik da garrantzitsua ebaluazio irizpideak oso garbi izatea.

D ereduarekin ez bada lortzen euskaraz aski gaitasun, nola bermatu eredu honekin lortzea? Nik nire zalantzak ditu lortzen den edo ez den: selektibitatez doazenen bi herenek euskara hautatzen dute azterketa egiteko,

eta %99k gaintitu egiten dute... Badagoela zer hobetua? Bai. Badagoela zer egina? Bai. Ikastetxe bakoitzak bere ardura hartu behar du, eta guk lagundu behar diogu hori aurrera eramaten, bere errealitateari erantzuteko.

Ez da orain atzerapauso bat egongo hainbat eskolatan?

Ez, ez, ez. Galdera da ea erreala den egun D eredu esaten den hori. D ereduak jarraituko du; kontua da ea ez ote zaion hainbat tokitan indar gehiago jarri behar errealitate horri, nahiz D ereduaren izan.

Hainbat zentrotan ez da joko gaztelania gehiago erabiltzera?

Ez dauka zertan. Zergatik aldatu behar du ikastetxe batek bere hizkuntza politika helburuak lortzeko? Benetan funtzionatzen dion ikusi behar da, edo babes gehiago eman behar diogun, helburuak bete ditzan.

Ez da murgiltzea hautatu. Kataluniako epaiak izan du eraginik?

Zer da murgiltzea edo ez murgiltzea? D ereduaren murgiltzea da? D ereduaren murgiltze eredu bada, ia

Nola bermatuko duzue itunpekoek ez dutela kuotarik kobratuko?

Ez da erarik izango inolako ikastetxek kuotak kobratzeko. Zuzendaritza berri bat eratuko da hori kudeatzeko, ogasun sail batek kudeatuko balu bezala. Egon daitezke kobratzeko beste behar batzuk: adibidez, txango bat. Horiek hemendik urtero baimenduko dira, eta gure webgunean publikatuko dira. Azkenean, mezu bera da: berdintasunaren eta ekitatearen ize-

nean, diskriminaziorik egon ez dadin, edozein ikasle izango du edonora joateko eskubidea, baldintza berdinetan, eta ikastetxe guztiek jasoko dute beren eremuan dagoen errealitatearen portzentaje bat; portzentaje bat bainoago, ardura bat.

Jaiotza tasaren jaitsierarekin li-tekeena da hainbat eskola hustea. Nola berretsi publikoen iraupena bermatzea?

Ikastetxe publikoetan eta itunpe-

koetan dago joera hori. Hiri handietan, hainbat proiektu batu egin beharko dira, erantzun egokiago bat eta eskaintza zabalago bat eman ahal izateko.

Haur Eskolak partzuergoa doakoa izango da?

Bai.



Ez da erarik izango inolako ikastetxek kuotak kobratzeko; zuzendaritza bat eratuko da kontrolatzeko»

Jabetza pribatuko haur eskolak diru publikoz finantzatu dira? Gogoeta prozesu batean ari gara. Ikusten dugu partzuergoa indartu behar dela.

Langileen ordezkariak zer parte hartze izango dute legea ontzeko prozesuan?

Legebiltzarrean ehun eragile egon dira, sindikatuak tarteko. Ni 600 pertsona baino gehiagorekin egongo nintzen, baita guraso elkarte denekin ere. Guztiek eduki

dute iritzia emateko aukera. Nire konpromisoa da horrela jarraitzea.

Baina mesfidantzak agerikoak dira, batez ere sare publikoaren egoeraren inguruan. Zer bideri jarrai dakiok sektore horiek bermeak direla sentitzeko?

Jabetu behar da, une askotan, nahiz eta zehaztu zerbait egingo dela, beti egongo dela mesfidantza, egin arte. Alkate nintzanean gauza bera tokatu zitzaidan; nirekin harremanetan jartzen zen hainbat jende: 'Beti politikariak, beti berdinak zarete, beti berdina esaten duzue...'

Kasu honetan, kezka zehatzak plazaratzen ari dira hainbat eragile.

Eta han beste batzuk. Bakarrik esan dezaket nire eta nire taldearen konpromisoa izango dela legebiltzarrak guri jarri dizkigun oinarriak eta betebeharrak edo neurriak bete ahal izateko borroka egitea. Eta bete egingo dugu.

Noizko lege berria?

Asmoa da urrian-edo gobernu kontseiluan onartzea.

JAGOBA MANTEROLA / FOKU



Murgiltzetik ihes egin da sinesten delako zentrotan, autonomian eta ikasleen irteera profileen»

dena murgiltze eredu batean dago. Alderdi politikoen artean hain zaila izan zitekeen gaia gatzatik baztertu da. Murgiltzea eta beste hainbat kontzeptutatik ihes egin da, sinesten delako ikastetxeen ahalduz, autonomian eta irteera profileen. Profila argi adierazia badago eta irakasleen trebakuntza badago, uste dut egoera egokia dela lanean ondo aritzeko.

Ikastolen Elkarteak kritika egin du, Euskal Herriaren aipamenik ez delako akordioan. Ez zaizu beharrezkoa iruditzen?

Ez diot garrantzirik ematen legebiltzarrak bidali digun horretan, jakinda bai gure legerian, orokorrean, eta bai egun martxan dauden curriculumetan eta liburuetan eta materialetan badagoela.